



NOTA DE PRENSA

AGURAINGO OSOKO BILKURAK ONARTU DITU 2024ko ORDENANTZA FISKALAK

Handitu egingo da OHZren hobariak izateko aukera izango duten pertsonen kopurua, 30.240 euroko errenta duten bizikidetz-unitateei aplikatuko zaizkie eta.

Orain, 30 eguneko epea ireki da alegazioak aurkezteko.

Agurain 2023/09/29. Aguraingo osoko bilkurak atzo onartu zituen 2024ko urterako ordenantza fiskalak. Berrikuntzen artean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan hobari gehiago egongo dira. Horrela, 2024ko urtariletik aurrera, urteko 22.681 eta 30.240 euro arteko errentek ere % 25 eta % 75 arteko beherapena izango dute zergan, bizikidetz-unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera. Bestalde, errenta txikienean, urtean 12.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenek, % 90 eta % 95 arteko hobariak jasoko dituzte.

OHZ, gainera, industria- eta merkataritza-azalera handiei eta energia ekoizteko plantek zerga-tasa handiagoa izango dute. Gainerako tartek KPIaren arabera eguneratuko dira, tasak eta prezio publikoak bezalaxe, eta horietan % 2,7ko igoera aplikatuko da.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kasuan, modu progresiboan handituko da milioi bat eurotik gora fakturatu duten enpresei aplikatzen zaien zerga-tasa. Bestalde, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren (EIOZ) kasuan, % 95eko hobari berria izango da administrazio publikoek sustatutako alokairu sozialeko sustapenatarako.

Raul Lopez de Uralde Aguraingo alkatea azpimarratu du aldaketa horiek progresibitatea hobetzen dutela eta, beraz, behar gehien dituzten aguraindarrei erantzuten dietela. *"Ezinbestekoa da gure herritarrek beren ahalmen ekonomikoaren arabera ordaintzea eta, era berean, udalaren baliabide ekonomikoak bermatzea, babes soziala eta kalitatezko politika publikoen garapena bermatu ahal izateko"*, nabarmendu du.

NOTA DE PRENSA

AGURAIN APRUEBA LAS ORDENANZAS FISCALES PARA EL PRÓXIMO EJERCICIO 2024

Se incrementa el número de personas que se beneficiarán de las bonificaciones en el IBI que se aplicarán a unidades convivenciales con hasta 30.240 euros de renta anuales.

Se abre ahora un plazo de 30 días para presentar alegaciones.

Agurain 2023/09/29. El pleno de Agurain aprobó ayer de forma inicial las ordenanzas fiscales para el próximo ejercicio 2024. Entre las novedades destaca la inclusión de más bonificaciones en el Impuesto de Bienes Inmuebles. Así, a partir de enero de 2024, las rentas de entre 22.681 y 30.240 euros anuales también dispondrán de una rebaja en el impuesto que oscilará entre el 25% y el 75% en función del número de personas que integren la unidad convivencial. Por su parte, las rentas más bajas, aquellas con ingresos inferiores a los 12.000 euros anuales, recibirán bonificaciones de entre el 90 y el 95%.

El IBI se incrementará además a las grandes superficies industriales y comerciales, mientras que las plantas de producción energética contarán con un tipo impositivo más alto. El resto de tramos se actualizarán en base al IPC, al igual que las tasas y precios públicos, donde se aplicará un incremento del 2,7%.

En el caso del Impuesto de Actividades Económicas se aumentará de forma progresiva el tipo impositivo que se aplica a aquellas empresas que facturan por encima de un millón de euros. Por su parte, en el caso del Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO) contará con una nueva bonificación del 95% para aquellas promociones de alquiler social promovidas por las administraciones públicas.

El alcalde de Agurain, Raúl Lopez de Uralde, ha destacado que se trata de unas modificaciones que mejoran la progresividad y por tanto, responden a los y las aguraindarras con más necesidades. “Es imprescindible que nuestros vecinos y vecinas paguen en base a su capacidad económica y que, a su vez, se garanticen los recursos económicos del ayuntamiento para poder garantizar así la protección social y el desarrollo de políticas públicas de calidad”, ha destacado.